

BESTELAKO XEDAPENAK

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA

2799

EBAZPENA, 2015eko ekainaren 17koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarena, Datuak Babesteko Sarien III. Edizioaren deialdia egiten duena.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak aurten ere ohorezko aipamena egin nahi die datu babesaren kultura, zabalkundea, ikerketa eta ezagutza sustatzeko eta datu babesa gizartean hedatzeko egindako lana aitortzeko zenbait pertsona fisiko edo juridikori, publiko edo pribaturi eta erakunderi ere bai.

Horrez gain, euskal administrazio publikoek burututako datu pertsonalen tratamenduak hobetzeko proiektuei ere ohorezko aipamena egin nahi die.

Ondorioz, eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezartzen dizkion egitekoak gauzatzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Datu Pertsonalak Babesteko Sarien III. Edizioa deitzea.

Bigarrena.– Deialdia arautuko duten oinarriak onartzea.

1. Oinarria.– Xedea eta helburua.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Datuak Babesteko Sarien III. edizioa deitu du, pribatutasuna babesteko eta bere ezagutzan sakontzeko arloan eta datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea hedatzeko arloan egindako lanik garrantzitsuenak goraiatzeko.

Deialdi honen helburua da saritzea oinarrizko eskubide honekiko agertu duten sentikortasunagatik nabarmendu diren pertsona fisikoak edo juridikoak, erakunde publikoak edo pribatuak, eta euskal administrazio eta erakunde publikoak ere bai.

2. oinarria.– Sariak.

Sariak honako kategoriak dituzte:

– Saria Datu Babesaren Arloko Ibilbide Profesionalari.

– Saria Datu Babesaren Ikerkuntza Arloan.

– Saria Datu Babesaren Komunikazio eta Zabalkundearen Arloan.

– Saria Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenei.

Kategoria bakoitzeko sari bakarra emango da. Hala ere, aurkeztutako lanen, baliabideen edo proiektuen kalitatea kontuan hartuta, sariaz gain akzesita ere eman ahal izango da.

Sariak eta, egotekotan, akzesitak, honakoak izango dira: jendaurreko gorazarrea, egiaztagiria eta ohorezko saria.

Sariak eman gabe utzi ahal izango dira, epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek, baliabideek edo proiektuek gutxieneko kalitate mailarik ez badute.

Epaimahaikideek eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoko langileek ezin izango dute sarien deialdian parte hartu.

3. oinarria.– Saria Datu Babesaren Arloko Ibilbide Profesionalari.

Sari honen xedea da goraipatzea euren lanbidean datu pertsonalak babesteko oinarrizko esku-bidea sustatzen eta babesten nabarmendu diren pertsonen egindako lana.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko gobernu organoetako kideek proposatu ahal izango dituzte hautagaiak.

Ezin izango dute sari hau jaso, aurreko deialdiren batean sari hau bera jaso dutenek.

4. oinarria.– Saria Datu Babesaren Ikerkuntza arloan.

Helburua da saritzea pertsonen pribatutasunerako eskubidea aztertzeke eta eskubide horrek gizartean, ekonomian, esparru juridikoan eta teknologikoan duen eragina ikertzeke jarduera zientifikoa eta ikerkuntza indibiduala nahiz kolektiboa.

Sari honetara aurkeztu ahal izango dira datu pertsonalen babesari buruzko lan zientifikoak edo ikerkuntza lanak, doktoretza tesiak, monografiak eta artikulak, indibidualak nahiz kolektiboak, argitaratuak ala argitaragabeak.

Deialdi honetan aurkezteko, lanek ez dute kategoria berean saririk izan behar aurreko deialdietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira lanak. Lanaren kopia bat edo erreferentzia aurkeztu beharko da formatu digitalean, eta, beharrezkoa bada, papelean ere bai, I. eranskinen eskabide ereduarekin batera.

5. oinarria.– Saria Datu Babesaren Komunikazio eta Zabalkundearen arloan.

Helburua da saritzea datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea sustatzen laguntzen duten profesionalen eta gizarte komunikabideen lanak.

«Web sozialeko» bitarteko elektronikoak ere saritu ahal izango dira, baldin eta gai nagusia eta argitaratutako edukiak, edozein ikuspuntutik begiratuta eta aztertuta, datu pertsonalak babesteari buruzkoak badira, eta oinarrizko eskubide hau zabaltzea eta hedatzea badute xede.

Saria eskuratzeko aukera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan gizarte komunikabidek argitaratutako edo hedatutako programek edo atal espezializatuek eta artikuluen edo berrien segidek, bai eta erreportajeek, monografikoek edo eduki bereziek ere.

Era berean, sari honetan lehiatu ahalko dute datu pertsonalen babesaren esparruan espezializatutako blog egileek, wikiek, eztabaida talde profesionalak edo bestelako baliabide elektroniko sozialek, baldin eta edukia euskaraz edo gaztelaniaz adierazita badago.

Deialdi honetan aurkezteko, lanek ez dute kategoria berean saririk izan behar aurreko deialdietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango dira lanak. Lanaren kopia bat edo erreferentzia aurkeztu beharko da formatu digitalean, eta, beharrezkoa bada, papelean ere bai, II. eranskinen eskabide ereduarekin batera.

6. oinarria.– Saria Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenei.

Sari honen helburua da euskal administrazio publikoei, euren eginbehar publikoak gauzatzean, pribatutasunaren kudeaketa hobetzeko laguntzen dieten antolaketa edo teknologia arloko edo beste arlo batzuetako proiektuak saritzea.

Sari honetan parte har dezakete datu babesa hobetzeko proiektuak sustatzen dituzten euskal administrazio publikoek, eta, banaka edo taldean, halako proiektuak garatzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek ere bai, administrazio sustatzailearen baimenarekin.

Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

– Proiektua azaltzen duen memoria eta egokitzat jotzen den dokumentazioa eta materiala ere bai.

– Proiektua ezarri bada, ezarpenaren gaineko txostena eta egungo egoera.

– Ikus-entzunezko aurkezpen bat ere aurkeztu ahal izango da, gehienez ere 10 minutuko iraupenarekin.

Deialdi honetan aurkezteko, proiektuek ez dute kategoría berean saririk izan behar aurreko deialdietan.

Proiektuen gaineko dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da. Dokumentazioaren kopia bat edo erreferentzia aurkeztu beharko da formatu digitalean, eta, beharrezkoa bada, paperean ere bai, III. eranskineko eskabide ereduarekin batera.

7. oinarria.– Eskabideak.

Aurkeztutako lanekin batera, jaso nahi den sariari dagokion eskabide orria ere aurkeztu beharko da, eta I., II. eta III. eranskinetan daude hurrenez hurren.

Eskabideak DBEBren Idazkaritza Nagusiari zuzendu beharko zaizkio, eta hemen aurkeztu ahal izango dira: DBEBren Erregistro Nagusia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Idazkaritza Nagusia, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz; edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduren bat erabilia.

Aurkeztutako dokumentazioak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, hutsa zuzentzeko eta nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, adieraziko zaio aurkeztu ezean, eskaera bertan behera geratuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Eskabideak aurkezteko epea urriaren 15eko urriaren 31n bukatuko da.

8. oinarria.– Epaimahaia.

Honako hauek osatutako epaimahaiak emango ditu sariak:

Lehendakaria: Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria.

Epaimahaikideak: Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emaileko kideak, Lege Aholkularitza eta Ikuskaritzaren arduraduna eta Fitxategien Erregistroa eta Auditoria Zerbitzuaren burua.

Idazkaria izango da, hitzarekin baina botorik gabe, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia.

9. oinarria.– Balorazioa.

Datu Babesaren Ikerkuntza eta Komunikazio eta Zabalkundearen arloko sarietara aurkezten diren lanen balorazioa egiteko, epaimahaiak honako irizpideak erabiliko ditu:

- Fidagarritasuna eta zuzena izatea zientifikoki, teknikoki eta juridikoki.
- Landutako gaien originaltasuna.
- Lanaren, hurbilketaren edo emaitzen berritasuna.
- Ekarpenaren garrantzia datu pertsonalak babesteko esparruaren errealitatearen ezagutzari eta sakontzeari begira.

Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenen Saria honako irizpideen arabera ebaluatuko du epaimahaiak:

- Fidagarritasuna eta proiektuaren kalitate teknikoa.
- Zerbitzu publikoak ematean pribatutasunaren kudeaketa hobetzeko egindako ekarpena.
- Izaera berritzailea.
- Eragin sozialak.
- Garapen maila.

Epaimahaiak deitu ahal izango die sarietara aurkeztu diren hautagaiei lana, baliabidea edo proiektua zuzenean azaldu dezaten, eta, hartara, epaimahaiak hautagaitza ebaluatzeko behar diren azalpenak eta argibideak eskatu ahal izateko.

10. oinarria.– Ebazpena.

Balorazio prozesua bukatu ondoren, epaimahaiak abenduaren 31 baino lehen ebatziko ditu sariak.

Epaimahaiaren erabakia Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren ebazpen bidez argitaratuko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orrian argitaratuko da, eta hautagaiei jakinaraziko zaie.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta ezin izango da errekurtsorik aurkeztu bere aurka.

11. oinarria.– Sari-ematea.

Sari-ematea, eta, halakorik badago, akzesitak ematea, Datuak Babesteko Europako Egunaren inguruan berriaz antolaturiko ekitaldi batean egingo da, eta behar adinako aurrerapenarekin jakinaraziko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orrian (www.avpd.eus), eta sarituei ere esango zaie.

12. oinarria.– Datuen babesa.

2015eko ekainaren 24a, asteazkena

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua xedatutakoa betetzeko, jakinarazi nahi dugu deialdia izapidetzeko behar diren datu pertsonalak «Prestakuntza, jarduera eta gertaeretara bertaratuak eta gonbidatuak» fitxategian jasoko ditugula eta sarien deialdi hau kudeatzeko eta izapidetzeko baino ez ditugula erabiliko, sarien oinarri arautzaileen arabera. Fitxategiaren organo arduraduna Datuak Babesteko Euskal Bulegoa da. Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Idazkaritza Nagusira jo dezakete datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideez baliatzeko. Hona helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3, 01008 Vitoria-Gasteiz.

Hirugarrena.—Ebazpen hau argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren web orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 17a.

Zuzendaria,
IÑAKI PARIENTE DE PRADA.

I. ERANSKINA:

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA:
DATU BABESAREN IKERKUNTZA ARLOKO SARIA

1 HAUTAGAIA			
HAUTAGAIAREN DATUAK			IFZ/NAN
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA			
HERRIA		LURRALDE HISTORIKOA	POSTA KODEA
1. TELEFONOA	2. TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA	

2 AURKEZTUTAKO LANA		
LANAREN IZENBURUA		
LAN MOTA		FORMATUA
<input type="checkbox"/> Lan zientifikoa <input type="checkbox"/> Ikerketa lana <input type="checkbox"/> Doktoretza tesia <input type="checkbox"/> Monografia <input type="checkbox"/> Artikulua	<input type="checkbox"/> Indibiduala <input type="checkbox"/> Kolektiboa <input type="checkbox"/> Argitaratua <input type="checkbox"/> Argitaragabea	<input type="checkbox"/> Kopia aurkeztu du paperean Formatu digitalak: <input type="checkbox"/> USB / CD / DVD euskarriak <input type="checkbox"/> URL: _____ _____

3 ESKABIDEA, AITORPENA, TOKIA, DATA ETA SINADURA

Behean sinatzen duenak AITORTZEN DU eskabidean eta eskabideari atxikitako dokumentazioan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla, eta

aurkeztutako lanak ez duela jaso inoiz saririk kategoria berean.

Era berean, ESKATZEN DU onartzeko Datu Babesaren Ikerkuntza Arloko Sariaren deialdi honetan parte hartzeko eskabide hau.

.....(e)n.ekoarena

ESKATZAILEA

IZPTA.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARIA**DATU BABESA**

Hautagaien datuak "Prestakuntza, jarduera eta gertaeretara bertaratuak eta gonbidatuak" fitxategian jasoko dira, eta fitxategiaren arduraduna Datuak Babesteko Euskal Bulegoa da. Hautagaien datu pertsonalak lana ebaluatzeko eta "Datu Babesaren Ikerkuntza Arloko Saria" antolatzeke, kudeatzeko eta ebazteke baino ez dira erabiliko. parte hartzaileek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Idazkaritza Nagusira jo dezake datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideez baliatzeko. Hona helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3 - 01008 Vitoria-Gasteiz.

II. ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA:
DATU BABESAREN KOMUNIKAZIO ETA ZABALKUNDEAREN ARLOKO SARIA

1 HAUTAGAIA			
HAUTAGAIAREN DATUAK			IFZ/NAN
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA			
HERRIA		LURRALDE HISTORIKOA	POSTA KODEA
1. TELEFONOA	2. TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA	

2 AURKEZTUTAKO LANA		
KOMUNIKABIDEA / SARE SOZIAL ELEKTRONIKOA		
IZENBURUA / LANAREN IDENTIFIKAZIOA		
LAN MOTA	KOMUNIKABIDE MOTA	FORMATUA
<input type="checkbox"/> Programa/Atal espezializatua <input type="checkbox"/> Artikuluen/Berrien segidak <input type="checkbox"/> Erreportajea/Monografikoa <input type="checkbox"/> Eduki berezia	<input type="checkbox"/> Idatzizko argitalpena <input type="checkbox"/> Ikus-entzunezkoa <input type="checkbox"/> Bloga/Wikia <input type="checkbox"/> Beste baliabide elektroniko bat	<input type="checkbox"/> Kopia aurkeztu du paperean Formatu digitalak: <input type="checkbox"/> USB / CD / DVD euskarriak
<input type="checkbox"/> URL: _____		

3 ESKABIDEA, AITORPENA, TOKIA, DATA ETA SINADURA

Behean sinatzen duenak AITORTZEN DU eskabidean eta eskabideari atxikitako dokumentazioan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla, eta

aurkeztutako lanak/blogak ez duela jaso inoiz saririk kategoria berean.

Era berean, ESKATZEN DU onartzeko Datu Babesaren Komunikazio eta Zabalkundearen Arloko Sariaren deialdi honetan parte hartzeko eskabide hau.

.....(e)n.ekoaren a

ESKATZAILEA

IZPTA.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARIA**DATU BABESA**

Hautagaien datuak "Prestakuntza, jarduera eta gertaeretara bertaratuak eta gonbidatuak" fitxategian jasoko dira, eta fitxategiaren arduraduna Datuak Babesteko Euskal Bulegoa da. Hautagaien datu pertsonalak lana ebaluatzeko eta "Datu Babesaren Komunikazio Eta Zabalkundearen Arloko Saria" antolatzeko, kudeatzeko eta ebazteko baino ez dira erabiliko. parte hartzaileek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Idazkaritza Nagusira jo dezake datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideez baliatzeko. Hona helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3 - 01008 Vitoria-Gasteiz.

III. ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKABIDEA:
DATU BABESAREN ARLOKO JARDUNBIDE ONENEN SARIA

1 AURKEZTUTAKO PROIEKTUAREN ARDURADUNA			
ARDURADUNAREN DATUAK			IFZ/NAN
KARGUA/ PROIEKTUAREKIKO HARREMANA			
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA			
HERRIA		LURRALDE HISTORIKOA	POSTA KODEA
1. TELEFONOA	2. TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA	

2 AURKEZTUTAKO PROIEKTUA		
ADMINISTRAZIO/ERAKUNDE PUBLIKO SUSTATZAILEA		
GARAPENAZ ARDURATU DEN ENPRESA/ORGANIZAZIOA (halakorik badago)		
PROIEKTUAREN IDENTIFIKAZIOA		
PROIEKTU MOTA	AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA	FORMATUA
<input type="checkbox"/> Antolakuntzako <input type="checkbox"/> Teknologikoa <input type="checkbox"/> Bestelakoa	<input type="checkbox"/> Proiektuaren memoria <input type="checkbox"/> Ezarpenaren txostena <input type="checkbox"/> Aurkezpen indibiduala	<input type="checkbox"/> Kopia aurkeztu du paperean <input type="checkbox"/> Euskarri digitala (USB / CD / DVD)
<input type="checkbox"/> URL: _____		

3	ESKABIDEA, AITORPENA, TOKIA, DATA ETA SINADURA
<p>Behean sinatzen duenak AITORTZEN DU eskabidean eta eskabideari atxikitako dokumentazioan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla, eta</p> <p><input type="checkbox"/> aurkeztutako proiektuak ez duela jaso inoiz saririk kategoria berean.</p> <p>Era berean, ESKATZEN DU onartzeko Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenen Sariaren deialdi honetan parte hartzeko eskabide hau.</p> <p>.....(e)n.ekoaren a</p> <p style="text-align: center;">ESKATZAILEA</p> <p style="text-align: center;">IZPTA.</p>	

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ZUZENDARIA**DATU BABESA**

Hautagaien datuak "Prestakuntza, jarduera eta gertaeretara bertaratuak eta gonbidatuak" fitxategian jasoko dira, eta fitxategiaren arduraduna Datuak Babesteko Euskal Bulegoa da. Hautagaien datu pertsonalak lana ebaluatzeko eta "Datu Babesaren Arloko Jardunbide Onenen Saria" antolatzeke, kudeatzeko eta ebazteke baino ez dira erabiliko. parte hartzaileek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Idazkaritza Nagusira jo dezake datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta datuei aurka egiteko eskubideez baliatzeko. Hona helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3 - 01008 Vitoria-Gasteiz.